

# begira



46. zk.  
2019ko uztaila

 **ULMA**

## Omenaldi hunkigarria gure erretiratuei





ALBISTEAK ETA GAURKOTASUNA < Manu Colino Vegak, ULMA Constructioneko langileak, urteko asmatzaileari GALBAHE saria eskuratu du



ERREPORTAJEA < Euskara ikasi edota hobetzeko saioak ULMA Taldean



#### ARGITARATZAILEA:

Grupo ULMA S. Coop.  
Garagaltza auzoa 51  
20560 ONATI

TEL.: 943 25 03 00

#### ZUZENDARITZA:

Carlos Sarabia  
csarabia@ulma.com

#### EDITORE/ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Joseba Alberdi, Elena Goirizelaia,  
Maria Sendin, Raúl Illaro, Irene Moreno,  
Edurne Unzueta, Nerea Burgoa,  
Jone Zamakola eta Carlos Sarabia.

#### DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Igone Basterra  
ibasterra@ulma.com

#### INPRIMATEGIA:

Gertu S. L.



Aldizkari hau paper birziklatuan inprimatu da.  
#keinujasagarria

## 2019ko uztaila

3 hitz egin dezagun honetaz...

4 albisteak eta gaurkotasuna  
Mugikortasunaren ahalmen eraldatzailea Ese Erre-ko logistikan

ULMAk bat egin du Basque Health Clusterrekin

LeafSkin eta Ebakin murriztua: ontziratze jasagarriaren bi adibide, IFFA azokan

Hormigoï polimerozko terraza aurrealdeak, pertsonalizatuak eta sormenezkoak Moralejan (Madril)

16 ULMA Taldeko beste talentuak  
Ezozí Soba. STEAM ikasketak emakumeen kolektiboari ikusaraziz

18 aurrez aurre  
Nerea Burgoa. ULMA Pipingeko Pertsonen Kudeaketa eta Komunikazio zuzendaria

20 erreportajea  
Omenaldi hungigarria gure erretiratuei

22 erreportajea  
Euskara ikasi edota hobetzeko saioak ULMA Taldean

24 ULMA Fundazioa

26 agenda eta iradokizunak



**RAUL GARCIA**  
ULMA Taldeko lehendakari ohia

ULMA Taldean bost urte eta ULMA Constructionen zortzi urte lehendakari lanean ibili ondoren, lekukoa beste batzuei pasatzeko momentua iritsi da. Denbora honetan ikasi dudan guztitik, bi puntu goraipatuko nituzke. Batetik, gure eredu kooperatibo honek pertsonak eta gizartea hobetzeko duen potentzial handia, kalitatezko enplegua sortuz, aberastasuna duintasunez banatuz eta etorkizunerako etengabe zutabeak indartuz. Ukaezina da ULMA Taldea gaur egun Talde industrial indartsua dela, gai askotan beste batzuen eredu. Gure gorabehera eta gabeziekin, 58 urteko ibilbide oparoa bistan dago.

Bestetik, eredu horrek aurrera egiteko dituen zailtasunak azpimarratuko nituzke. Nazioarteko merkatuan lehiatzeko baldintza zailak hor daude, baina orokorrean hori aldatzea ez dago gure esku, guretzat eta gure lehiakideentzat baldintza berberak baitira. Guk, horretaz gain, lehiatzeko zailtasun estruktural batzuk baditugu, finantzaketan adibidez, baina mehatxurik handiena agian barrutik datorkigu. Nire ustez, oso zaila da eredu hau bere horretan mantentzea kultura kooperatibo sakonik gabe. Gaur eta aurrerantzean izango ditugun erronkei aurre egiteko, oso garrantzitsua da kolektiboak gure izaera kooperatiboa bere osotasunean ulertzea eta bizitzea, honen ezaugarri nagusiak hauexek direlarik: duintasuna, elkartasuna, eskuzabaltasuna eta legatu indartsua uzteko bokazioa. Hori da gure muina eta hori da zaindu eta elikatu beharko genukeena. Guzti hori garatzeko, ULMA Taldeak eremu paregabea eskaintzen digu.

Uste osoa dut denon laguntza eta ekarpenekin, eta baita Taldeko lehendakari berriaren bultzakadarekin, ULMA garatzen eta indartzen jarraituko dugula eta, horrekin batera, baita gure inguruko gizartea ere.

Bukatzeko, Taldeko lehendakari berriari ibilbide oparoa opatzea nahiko nioke. Lander, zorionak, zorte on eta beti aurrera!

**LANDER DIAZ DE GEREÑU**  
ULMA Taldeko lehendakaria

Ilusioa eta motibazioa, baina aldi berean urduritasuna eta bertigoa. Hori sentitu nuen ULMA Taldeko lehendakaria izango nintzela jakin nuenean. Egunetik egunera handiagoa eta indartsuagoa den talde kooperatibo baten lehendakaria izatea ez da edonolako erronka, eta bat-batean, hori daukat aurrean.

Lau urtez ULMA Packagingeko lehendakaria izan naizenez, badakit gure Negoziok garbi daukatela beraien erantzukizuna, errentagarritasun onak lortzeko gogor ari baitira lanean. Baina ezin dugu ahaztu ULMA proiektu sozio-enpresarial bat eta bakarria dela, non bertan parte hartzen dugun guztiok norabide eta norantza berean mugitu behar garen.

Eta erronka horietan jarri nahiko nuke nire arreta, izan ere, Taldeko kultura kooperatiboa lantzen jarraitu behar dugu elkarrekin: kooperatiba guztien oreka mantenduz, gizarte erantzukizunari aurre eginez... Azken finean, kooperatiba bezala definitzen gaituzten kontzeptuak indartu behar ditugu eta gure nortasunaren erakusgarri bihurtu.

Eta bidean bakarrik joango ez garenez, ingurunearekin ere elkarlanean jarraitu beharko dugu, nola ez, MONDRAGONen, eta baita administrazio publikoarekin eta beste hainbat erakunderekin.

Bukatzeko, langa hain goian jarri didan Rauli eskerrak eman nahi dizkiot azken urteetan egin duen lanagatik, eta, batez ere, iparrorratzak nora begiratzen duen erakusteagatik.

Zorte on zure ibilbide berrian eta beti aurrera!

## ULMA ORGA JASOTZAILEAK

### Mugikortasunaren ahalmen eraldatzailea Ese Erreko logistikan

Ese Erre, ULMA Orga Jasotzaileetako negozio unitatea, espezializatuta dago orga jasotzaile eta plataformetarako marka askotako ordezkotako piezen banaketan eta salmentan, eta urrats garrantzitsuak egiten ari da sektoreko erreferentziatzeko enpresa nazional moduan finkatzeko apustuan; horretarako, sistema bat garatu du, biltegiko prozesuak eta operatibak antolatu, koordinatu eta optimizatzeko, bere bezeroei zerbitzu hobea egin ahal izateko. Horrenbestez, tresna hori inplementatuta, eta hein handi batean eskaera gero eta zorrotzago batek bultzatuta, Ese Erre jausi kualitatiboa eman du bere zerbitzua emateko eta kudeaketa logistikoko gaitasunean, eta erreferentzia da 4.0 industriari, ordezkotako piezen sektorean, Espainian.

#### MUGIKORTASUNEN IRITENBIDE BERRITZAILEAK INPLEMENTATZEN

Ese Erreren biltegietan logistika kudeatzeko inplementatutako soluzioak, mugikortasunean oinarrituta, fluxu logistikokoak kudeatzen ditu, produktuak jasotzen dituenetik merkantzia irteten den arte, eta bereziki zuzenduta dago, Ese Erre bezala, oso behar espezifikoak dituzten enpresei, biltegian sartu-irten-kokatzeko ekintzak neurtu eta optimizatu behar dituztenei, alegia.

Horrek bertako langileei ahalbidetzen die, gailu mugikorrak erabilia, merkantziak biltegian egiten dituen mugimendu guztiak erregistratzea, terminalean jarraitu beharreko urratsak

adieraziz eta operazio akastunen alertak jasoz horiek gertatu aurretik.

#### PROFESIONALITASUNA, BEZEROAREKIKO HURBILTASUNA ETA HAREN BEHARRAK ULERTZEA, ECOMMERCE INDARTSU BATEN ATZEAN

Zerbitzurako filosofiarekin, merkatu gero eta zorrotzago eta globalizatuago baten beharrak ahalik eta gehien asetzera zuzenduta, Ese Erre aholkularitzako euskarri bat ematearen alde egin du, gaitasun profesional handiko teknikariek, eta sare komertzial propio batekin, zeinak, bere e-commerceari eta inplementazio berriarekin optimizatu duen sistema logistikoari esker, lortu egiten baitu edozein eskari herrialdeko edozein puntutan kokatzea denbora errekor batean, gainera, erreferentzien katalogo zabala eskainiz stockean, prezioen aukera oso lehiakorrekin.

Ese Erre gaur egun ordezkotako piezen hornikuntzan daukan lidergo posizioa finkatu egiten da, merkataritza elektronikokoan bermatuta. Bere apustuaren oinarrian dago zerbitzua 24/7 erabili ahal izatea, modu berezi eta berritzailean, eta horrek esperientzia positiboa ematen die bezeroei, zerbitzua arin, efiziente eta mugagabea ahalbidetzen duten soluzioei esker. Izan ere, bere lema, "ez badaukagu zuk behar duzuna, seinale dagoeneko ez duzula behar", ederki erakusten du bezeroei zehazki behar dutena eskaintzeko egiten duen ahalegina.



## ULMA HANDLING SYSTEMS

### ULMA Handling Systems, Formakuntza dualarekin bat

ULMA Handling Systems MONDRAGON Taldeak eskaintzen duen dual formakuntzan parte aktiboa izaten jarraitzen du eta oraingo honetan master duala ikasi nahi duten gazte guztiei kooperatibako atea ireki dizkie

ULMA Handling Systemsek MONDRAGON Taldearen Formakuntza dualaren metodoaren aldeko apustua egiten jarraitzen du, ikasleak master-ikasketen hasieratik parte hartuko duelarik. Esperientzia hau prestakuntza-esperientzia desberdina da, eta **honen helburua txandakako prestakuntza bat lantzea da, non ikasleak ikasi eta lan egiten duen esperientzia landu eta lanaren eta etorkizuneko lanbidearen ikuspegi erreala izateko.**

Duela 14 urtetik hona, urtez urte, ULMA Handling Systemseko lan-taldea handitzen ari da. "Aro berri honetan eta eskuartean dugun aurreikuspen historikoarekin, gure helburua da 4.0. logistikaren oinarria gure zutabe nagusiaren gainean eraikitzen eta indartzen jarraitzea, hau da, gure adituen talentua oinarri hartuta", azaldu du Karlos Aitor Pérezek, ULMA Handling Systemseko pertsonen arloko zuzendariak.

Talentua ULMA Handling Systemseko zutabe garrantzitsuena da eta ezinbestekoa da ikasleak proiektu errealean parte-hartzeko aukera izatea, bere ezagutzak eta gaitasunak landuz, proiektu berritzaile honen parte izanik. Izan ere, zati eta atal guztiek koordinazioa eta zehaztasun matematiko batekin lan egiten dutenean, logistika ondo koordinatua dago. Ondorioz, onenekin lan egiten dugu, 450 profesional baino gehiagoko taldea dugu, know-how-a eta beste zerbait, bereziagoa.




## ULMA TALDEA

### Lander Diaz de Gereñu, ULMA Taldeko lehendakari berria

Lander Diaz de Gereñu, gaur egun ULMA Packagingeko Kontseilu Errektoreko lehendakaria, ULMA Taldeko Kontseilu Orokorreko lehendakari berria izateko aukeratu dute ULMA Taldearen Ohiko Batzar Nagusian, 4 urteko aldi baterako. Landerrek karguan 2014. urtetik aritu den Raul Garcia ordeztuko du.

Lander Diaz de Gereñu, Elektronikako Ingeniari Teknikoa eta Automatika eta Potenziako Elektronikako Goi mailako Ingeniaria da. Beti egin du lan ULMA Packagingeko Bulego Teknikoan, diseinatzaile elektronikoko zereginetan, eta 2015. urtetik ULMA Packagingeko lehendakaria izan da.



## ULMA MEDICAL IMAGING

### ULMAk bat egin du Basque Health Clusterrekin

Martxoan, ULMAk bat egin zuen Basque Health Clusterrekin, zeina irabazi asmorik gabeko elkarte bat baita, 2010ean sortua, osasunaren arloko euskal enpresak koordinatu, ordezkatu, kudeatu, sustatu eta interes komunak defendatzeko.

Elkarteak osatutako sareak 50 euskal enpresa baino gehiago batu ditu dagoeneko, euren arloak izanik osasunera aplikatutako bioteknologia, nekazaritzako elikagaien sektorea, gailu medikoak, e-osasuna, kudeaketa, zeharkako zerbitzuak, etab.

ULMAk egokitzen jo du elkartearekin bat egitea, **negotzio aukera zabala** eskaintzen duelako, izan ere, **administrazio publikoekin eta biozientzia eta osasunaren esparruko beste erakunde batzuekin lan egiten du, garapenari, hazkunderari eta nazioartekotzeari lagunduz.**

## ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

### Fatxada garbi, soil eta iraunkorra San Juan de Dios zentrorako, Ciempozuelos, Madril

PROIEKTU HONETAN, GUZTIRA, 4500M<sup>2</sup> FATXADA INSTALATU DIRA.

#### TESTURA, KOLORE ETA INSTALAZIO SISTEMEN KONBINAZIOA

Eraikinaren azalerako bi testura eta hainbat kolore aukeratu dira. Fatxada nagusian, Convivencia enparantza aldera, tonalitate urdinxa aukeratu da eta plaka bertikalen kokapen sistema erabili da. Sistema horizontala aukeratu da eraikinaren beste zati guztietarako.

Gainerako fatxadetarako; gainaldean, Aire gama erabili da tonu argian, eta eraikina oinarritzen den zokalarako, Ur gama aukeratu da tonu grisean, minuihin testurakoa bertikalki kokatua.

#### MATERIALA ETA ZERBITZUA

Obrako arduradun izan den arkitektoetako batek, Rafael Fernandez Perez, azaltzen digun bezala, "bolumetria argidun eraikin bat proiektatu nahi zen, xumea, gutxieneko lodiera daukan fatxada aireztatuarekin, iraunkorra, hondatuz gero plakak aldatzeko erraztasunarekin eta testura eta kolore desberdinak dituen".

Zentro honek zerbitzu desberdinak ditu, horien artean daude; Erizaintza Unibertsitate Eskola, Fisioterapia eta, orain, Unitate Psikogeriatrikoa.



## ULMA PACKAGING

### ULMA Packagingek Thaiandiako bere filiala inauguratu eta Asiako hego-ekialdean duen presentzia finkatu du

50 HERRIALDE BAINO GEHIAGOTAN EGOTERA ERAMAN DUEN BERE BOKAZIO GLOBALA INDARTU DU.

Ezarpen berriarekin, merkatu berrietako hazkundera sendotzen du eta, Thailandian bere produktu eta zerbitzuak enpresa banatzaileen bidez merkaturatzen hasi zenetik ia bi hamarkada igaro direlarik, erronka berri eta garrantzitsu bati ekin dio, bere filiala ezarriz.

Apustu komertzial berri horrekin ULMAk bete nahi duen helburua da Asiako hego-ekialdeko herrialde hartako bezeroei arreta pertsonalatuagoa eskaintzea eta proiektu bakoitzaren neurria egindako zerbitzua ematea. **ULMA Packagingen Asia-Pazifikorako zuzendari komertzial Mikel Kortabitartek nabarmendu duenez, "duela urte asko erabaki genuen Thailandian ezartzea, gure bezero askok arreta hurbilagoa eskatzen zutelako, eta Thaiandiako industriari kalitate handiagoko zerbitzua eskaini nahi geniolako".** Thaiandiako merkatuaren ezaugarria da nekazaritzako sektore indartsua duela, janari ontziratuen esportazio globalak egiten dituzten korporazio lokal handiekin, eta ULMA Packagingek ontziratze soluzioak eskaintzen ditu industria sendo horren neurria.

ULMA Packagingen lehentasuna **beti da bere bezeroei operabilitaterik eta produktibitaterik handiena bermatzea**, eta horregatik da garrantzitsua haiengandik hurbilen egoten saiatzea, firmak presentzia duen merkatuetako bakoitzean. Filial berriak aholkularitza

komertzial hurbila eskainiko du, zerbitzu teknikoaren bitartez ziurtatuz ekipamenduek efikaziarik handienarekin lan egingo dutela, bezeroen negozioei balio erantsi handiagoa emateko. ULMA Packagingek bere bezeroen lantaldeen luzapen baten moduan dihardu, bere ezaugarriak izanik hurbiltasuna, azkartasuna eta erantzuteko efikazia. Izan ere, markaren zutabe estrategikoetako bat da bezeroei zerbitzu kalitatezkoa, azkarra eta efikaza ematea.

**Filial berria** Bangkok-en kokatu da, eta **Chuckkrit Apikulek** zuzenduko du, zeina sektorean esperientzia zabala metatu eta gero sartu baita ULMA-n. Apikul jaunak dioenez, "Thaiandiako merkatua oso erakargarria da ULMArentzat, gaur egun duen tamainagatik zein hazteko duen ahalmenagatik. Oso baikorrak gara filial berriaren etorkizunari buruz, eta konbentziturik gaude arrakasta handiak lortuko dituela".

Ezarpen berriarekin ULMA Packagingek duen erronka nagusia da gaur egungo bezeroen gogobetetzea bermatzea eta horiek fidelizatzea, eta, aldi berean, merkatu kuota handitzea. Gainera, filialari esker konplexutasun tekniko eta neurri handiagoko proiektuak landu ahal izango dira. ULMA Packagingek 19 filial propio ditu gaur egun mundu osoan, eta orain indartu egin ditu bere **bokazio globala eta bezeroari zerbitzua eta hurbiltasuna eskaintzeko estrategia.**



## ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

### ULMA drainatze kanalak Tres Molinosen, Bartzelonan, Lidlek estreinatu berri duen dendan

Lidlen denda berria, Esplugueseko Tres Molinos eraikin historikoan. **Alemania etxeak Espainian duen dendarik handiena eta iraunkorrena da, eta jada erreferentziako establezimendua da.** 1800 m<sup>2</sup>-ko azalera dauka, eta 150 aparkaleku baino gehiago.

Berriro ere, LIDLi fidagarriak iruditu zaizkio gure kanalizazio soluzioak. Bi sistema instalatu dira establezimenduen aparkalekuan: alde batetik, **F sistema**, karga handietarako; eta, bestetik, **MultiV+ kanalak**.

#### F SISTEMA ETA MULTIV+ SISTEMA

F kanalak oso erresistenteak dira, eta sareta kanalean 4 torlojuekin finkatzeko sistema bat daukate. Karga handiei eutsi behar dieten zatietarako diseinatu dira bereziki, batez ere, merkantzien kargarako eta deskargarako arloetan. MultiV+ kanalak, berriz, produktu gama hobetu bat dira, eta oinezkoentzako guneetan, merkataritza guneetan eta edozein eratako ibilgailuetarako aparkalekuetan erabiltzen dira nagusiki.



## ULMA CONSTRUCTION

### ULMA Mexikoko Diablos Rojos estadioa eraikitzeke proiektuan

ULMAk Mexiko Hirian duela gutxi inauguratu den Alfredo Harp Helú estadioa eraikitzeke lanetan parte hartu du, Diablos Rojos taldearen egoitza berria.

Diablos Rojosen estadioak, Mexikoko Beisbol Ligaren (LMB) topalekuak, altzairu arinez egindako deabruen sardearen formako sabaia edukiko du, eta 13.000 ikuslerentzako lekua.

Proiektu honen alderdirik garrantzitsuetako bat izan da ekipo ugari adostutako epeetan hornitzeko ahalmena eduki duela, zehazki, 810 tona ekipamendu hornitu baitira. **Bezeroak ULMA sistemak aukeratu ditu, batetik sistema horiek duten karga ahalmenagatik eta, bestetik, sistemek leku gutxiago okupatzen dutelako; izan ere, leku gutxi okupatzeak ahalbidetu du obra guztitik trabarik gabe ibiltzea.**

MK zimbrien 12 dorreek estalkiaren 550na tonako 8 egiturei eutsi diete. Kargen arabera, 4 eta 8 oineko dorreak

eratu dira, gehienez 26 metroko altuerarekin.

Dorreak muntatzeko prozesua obra lekuan bertan hasi da, osagaiak modulutan muntatuta. Garabi batekin zegoen lekura eraman dira eta

bertikalki lotu dira. Dorre bakoitzak komunikazio bertikaleko sistemak, eskailerak eta barandadun plataformak ditu, segurtasun arau guztiak betetzen dituela bermatuta.



## ULMA AGRICOLA

### ULMAk olibondoak sustraitzeko proiektu bat egin du Marokon

**5.000m<sup>2</sup>-ko negutegi bat** hornitu du, **olibondoak sustraitzeko, landareari hasierako hazkuntzan laguntzeko ekipamendu guztiekin, ondoren lekualdatu ahal izateko.**

Negutegia Afrikako herrialdeko eskualderik ahulenak garatzen laguntzeko programa baten barruan kokatzen da, Marokoko erresumak laguntza ematen baitie landa inguruneetako biztanleei landareak hazteko, ureztatzeko sistema modernoaren bitartez, etorkizunean landa ingurunean modu jasangarrian bizi ahal izateko. Izan ere, Marokoko hiriak gero eta saturatuago daude, landa eremua despopulatu ari den bitartean.

Marokok urtero 2 milioi tona oliba ekoizten ditu (2018ko datua), eta %28ko hazkundera izan zuen aurreko urtearekiko, guztira 1 milioi hektarea baino gehiago.



## ULMA PACKAGING

### Marta Vazquez HETELen #aitzindariakLH #precursorasFP kanpainako koprotagonista

Joan den maiatzaren 13an, Euskadiko LH Ikastetxeen itunpeko sarearen Hetele Elkarteak #aitzindariakLH #precursorasFP Hetele kanpaina abiarazi zuen, emakumeak industri zikloetara erakartzeko helburuarekin.

Bilboko BBK Aretoan antolatu zen prentsaurrekora hainbat komunikabide bildu ziren, lehen eskutik jasotzeko kanpainaren hainbat protagonistaren iritzia, baita BBK eta Euskaltel laguntzaileena ere.

Goribarreko termozigituko lantegian azpimultzoen muntaketan lan egiten duen Marta Vazquez lankideak Hetelekin egin duen spotean parte hartu du.

Martak kontatu duenez: "beste sektore

batean zortzi urtez lanean aritu ondoren, nire bizimodua aldatu beharra nuen. Muntaketaren munduak asko erakartzen ninduen, eta, horregatik, Industria Mekanika ikastea erabaki nuen".

Eskerrik asko Marta zure lankidetzagatik, eta espero dugu zure kontakizunak balio izatea emakume gehiagok zure adibideari jarrai diezaioten.



## ULMA HANDLING SYSTEMS

### ULMA Handling Systems irakasle aritu da Euskal Herriko Unibertsitatearen udako ikastaroen 38. edizioan

**ERALDAKETA DIGITAL INDUSTRIALA ETA HORREN ERAGINA HORNIKUNTZA KATEAN.**

Hori guztia eta gehiago Euskal Herriko Unibertsitateko udako ikastaroetan non ULMA Handling Systems irakasle aritu den aditu gehiagorekin batera

2019ko udan Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU/UPV) udako ikastaroen 38. edizioa egin da. Ikastaroak gizarteak dituen erroken inguruan argi egiteko topaleku dira. 191 proposamen presentzial izan dira guztira.

Ekainaren 21ean ULMA Handling Systemsek irakasle gisa parte hartu zuen "Eraldaketa digitala industriala eta horren eragina hornikuntza katean" ikastaroan, Donostiako Miramar jauregian.

Ikastaroan Euskadi Mugikortasun eta Logistika Klusterrak, Deustoko Unibertsitateak, Microsoftek, PA Consultingek eta ULMA Handling Systemsek parte hartuko dute; horrela, adituen ezagutza jaso dute udako ikastaroan parte hartu zuten pertsonen.

Ikastaroko irakasleek jakin badakite industriari aplikaturiko eraldaketa digitala negozioarentzat balio erantsia sortzeko aukera bat dela, prozesuei eraginkortasuna erantsita, kudeaketa optimizatuta eta bezeroei emandako zerbitzua hobetuta.

Ikastaro horren helburua izan da eraldaketa digitalak industria sektoreari eskaintzen dizkion aukerak ezagutzea.

Horrez gain, gaur egun eraldaketa digital horretan murgiltzeko ezinbestekoak diren joera eta teknologiak eta horien norabidea aztertu da. Horretarako, kudeaketa industrialean sartu daitezkeen produktu eta zerbitzuak errepasatu dira eta negozio bakoitzarentzako dituen abantailak nabarmendu dira, balio erantsiari eta errentagarritasunari dagokionean.



## ULMA ORGA JASOTZAILEAK

### MasterChef en zazpigarren edizioa ULMA Orga Jasotzaileen gainean abiatu zen

ULMA ORGAK NEGOZIOAK TVE-KO LA 1-KO PROGRAMAN PARTE HARTU ZUEN EDIA EM GAMA BERRIKO HIRU EKIPAMENDUREKIN.



Programaren 15 minutu baino gehiago ULMAren Mitsubishi orga jasotzaileak izan ziren protagonista, epaimahaiko kideek beraiek gidatu baitzituzten, denboraldi berria abiarazteko seinalea emateko.

ULMAko langileak errodajearen bertan egon ziren, gidaritza zein ekipamenduen kargen manipulazioa behar bezala egiteko, eta segurtasun berme guztiarekin, eta, irudietan ikus daitezkeenez, jarraibideak zorrotz bete ziren.

2019ko edizioko kanpoaldeko lehen proba Burgosko San Pedro de Cardena monasterioan egin zen: 902. urtean eraikia, 9.000 m<sup>2</sup> ditu, eta kultur intereseko ondare deklaraturata dago.

## ULMA CONSTRUCTION

### ULMAk eta bere bezeroek osatutako ekioparen esperientzia eta balorazioa lehen pertsonan kontatuta

Gauzatutako eraikuntza proiektu bakoitza ULMAren ekipo komertzial, produktibo, tekniko eta logistikoaren ezagutzen eta bagajearen zatia da, bezerora bideratuta baitago argi eta garbi eta obra bakoitzean parte hartzen duten agente guztiarekin elkarlanean aritzen baita.

Zentzu horretan, ULMAk leku nabarmena eskaintzen die bere webgunean proiektu bakoitzaren profesional trebatuen talde bakarra osatzen duten ULMAko zein ULMAren bezeroen pertsonen, webgunean ahotsa eta protagonismoa emanda, beren esperientzia lehen pertsonan kontatzeko.

Elkarlan ona, lanak ezustekorik gabe gauzatzea, arreta bikaina, berrikuntza esperientziatik, erantzun azkarra, soluzio tekniko oso konplexuak, aholkularitza tekniko eta logisitiko osoa, soluzio praktikoak eta efizienteak, gogobetetzea, erabateko lankidetzeta, erabilgarritasun handia eta stocka, proaktibitatea, bezeroarentzako arreta zerbitzu ona, segurtasuna eta konfiantza. Horiek dira



eskaneatu kode hau zure smartphonearen QR irakurgailuarekin >>>



ULMAren bezeroak eta laguntzaileak hainbat eraikuntza proiektutan elkarlanean aritzen jarraitzea eta elkarlanaren errepikatzea daramatzaten arrazoi batzuk.

Gero eta zorrotzagoak, konplexuagoak eta garrantzitsuagoak diren eraikuntza proiektuei modu errentagarrian eta seguruan irtenbidea emateko hurbiltasuna, konpromisoa eta inplikazioa erakusten du ULMAk eta horrek egiten du ULMAk

eskaintzen duen konfiantzazko zerbitzuak bezeroen eta lankideen aitortza edukitzea. Beraien iritzia inspirazio eta indar iturri dira ULMA osatzen duten pertsonentzat, berrikuntzaren, sormenaren eta kalitatearen alde egiten jarraitzeko, enkofratuetan eta aldamiotan soluzio tekniko integrala eskaintzeko, soluzioaren diseinutik bertatik hasita materialaren horniketara eta obrako ikuskapenera arte.

## ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

### Badugu jada Berdintasun Batzordea!

Batzorde berriaren helburua da **egon daitezkeen genero arrakalak antzematea eta murriztea** eta horrela Genero Berdintasunerako Plan bat egitea aurtun.

Plan horren bitartez asmoa dagizonez eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatzea gure kooperatiban, bertako lan baldintzak, barruko antolamendua, funtzionamendua, zerbitzuak eta beste erakunde batzuekiko harremanak aztertuz.

Lehen urratsa izango da kolektibo osoari inkesta bat egitea, eta horrekin batera elkarrizketa sakon batzuk ere bai, jakiteko zein egoeratan dagoen gure kooperatiba eta jardura plan bat definitu eta diseinatu ahal izateko.

Batzordeak kooperatibaren organo

eta kolektiboetako ordezkariaren laguntza dauka, iritzi guztiak barne hartuko dituen ikuspegi integral bat edukitzeko asmoari erantzuteko.



## ULMA EMBEDDED SOLUTIONS

### IoT-ko soluzio osatu eta berritzailea FlyThings-ekin lankidetzan

4.0 Industria gero eta presenteago dago. Datuak jaso eta gordetzeko eta euren aktiboak edo produktuak monitorizatzeko beharra duten enpresen kopurua nabarmen handitu da.

Gaur egun, sensorizazioko aukera ugari aurki daitezke informazioa jasotzeko. Eskuarki, soluzio horiek erraz konfiguratzeko dira, eta ekonomikoki ez dute inbertsio handirik behar. Benetako arazoa biltegitratzeko eta monitorizatzeko zatian dago.

Orain arte, enpresa bakoitzaren beharretara egokitutako software bat aurkitzea oso garestia zen, eta inbertsio handia egin beharra eskatzen zuen. Gainera, horrek ez zuen ziurtatzen soluzioak beti espero zena betetzea.

ULMA Embedded Solutionsen apustu egin genuen 4.0 Industriaren arloan zerbitzuen eskaintza handitzeko. Ildo horretan, FlyThingsekin lortutako lankidetzak hitzarmenaren bitartez –ITGko (Galiziako Institutu Teknologikoa) spin-off bat da–, irtenbide berritzaile bat definitu dugu, FlyThingsen web plataformaren aurreratutako oinarrituta, **milioika datu gorde, monitorizatu eta balioa eman ahal izateko, milisekundotan transmitituta, gailu**

**ugariren eta sensorizazioren bitartez. Irtenbide horrek jarduteko ahalmenak eskaintzen ditu, monitorizatutako instalazioak eskuz edo automatikoki kudeatu ahal izateko erabiltzaile, enpresa eta hizkuntza anitzeko ingurune batean.**

ULMA Embedded Solutionsek lagundu egiten die enpresa industrialei IoT soluzio osoa definitzen eta inplementatzen, FlyThings plataforman oinarrituta, gure

bezeroek 4.0 Industriarako jautzia egin ahal izan dezaten modu errazago batean, eta une oro jakinda inplementazioak zein mantentze lanak zer kostu ekarriko dien. Sistemaren ezaugarria hedapenaren azkartasuna eta malgutasuna da.

IoT soluzio hori hainbat proiektutan inplementatuz lortzen ari garen emaitzak benetan onak izaten ari dira.



## ULMA PACKAGING

### LeafSkin eta Ebakin murriztua: ontziratze jasangarriaren bi adibide, IFFA azokan

LeafSkin eta Ebakin murriztua ditugu ontziratze soluzio jasangarriko ULMA Packagingen bi aplikazio garrantzitsu, eta erakusgai jarri ziren Frankfurtan egin zen IFFA azokaren azken edizioan.

Ontziratze soluzio jasangarriko ULMA Packagingen bi aukerak **ingurumen inpaktua murrizteko diseinatu dira**, beharrezkoa duten ontzi kantitatea murriztu egiten baita. Horrela, bermatu egiten dira elikadura segurtasuna eta produktuen bizitza erabilgarria, eta hondakinak murrizten dira, material birziklagarriagoak eta konpost egiteko modukoak erabiltzen baitira.



LeafSkin

**ULMA Packagingen ontziratze soluzio jasangarrietako bat da, plastikoa %80ra arte murrizten baita.** %100 birziklagarria den kartoi erretilu lau bat dauka, eta materialak erabat bereizten dira.

“Easy open” ertz bat dauka, tapako filma kentzeko, eta bigarren ertz bat, erretiluak dituen bi materialak bereizteko. Hartara, gerora, errazago birzikla daiteke.



Reduced Scrap edo Ebakin murriztua

Hau da interes handiena pizten duen beste ontziratze soluzio jasangarrietako bat. Darfresh ontzia da, eta **film ebakinak %40ra arte murriztu daitezke**. Hutsean ontziratze espezifikoari diseinatutako oinarritako filmean zuloak egiteko aukera ematen duten produktuarentzako dago prestatua.

Bi soluzio horiek ez dira bakarrak, eta **#ULMAweCare** kontzeptu berriaren pean aurkeztu dira. ULMA Packagingek ontziratze jasangarria lortzera bideratutako ekintzak gauzatzeko daukan konpromiso irmoaren erakusgarri dira. Standean bertan, gune bat prestatu zen, ontzi jasangarri gehiago ikusi ahal izateko. Erakusgarri jarritako ia makina guztiak lotura zeukaten kontzeptu berriarekin, eta onura zehatzak zekartzaten materialak murrizteari dagokionez; batzuetan, gainera, material tradizionalak jasangarriagoekin ordezkaturak.

## ULMA AGRICOLA

### PLANASAK konfiantza osoa jarri du ULMA Agricolan, Marokon instalazio bat irekitzeko

PLANASA Espainiako enpresa bat da, liderra nekazaritzako elikagaien sektorean, eta ekoizpen lantegiak ditu nazioarteko hainbat herrialdetan. Enpresa horrek konfiantza osoa jarri du ULMA Agricolan, proiektu estrategiko bat aurrera eramateko.

Marokon **65.000 m<sup>2</sup>-ko instalazio bat irekitzea da helburua**, fruitu gorriak, eta bereziki mugurdiak landatzeko.

G12 eredu berotegia da, eta 6 m-ko altuera du erreteneraino. “Tximeleta” motako aireztapen zenitalak ditu, itzala emateko pantailak, 4 gune independentetan klima kontrolatzeko gailuak eta bi isuriko 1.536 m<sup>2</sup>-ko biltegi estalia, sandwich panelduna.

**Giltza eskura erako kontratazioa** izan da. Azpikontratutako enpresa bati 20-30 zuzeneko langile kontratatzeko erronka onartu du ULMA Agricolak, eta

beste batzuen laguntza ere eskuratu du, proiektua muntatu, koordinatu eta martxan jartzeko.





### ULMA ORGA JASOTZAILEAK

## “Smaller is better” lelopean, Inoxtruckek COMPACT EPT berria aurkeztu zuen IFFA 2019 azokan

Inoxtrucken traspaleta elektronikoak –ULMA Orga Jasotzaileak enpresaren jarduera– ezagunak dira daukaten **diseinu higienizagarriagatik. Hori dela eta lanketa gela zurietan erabiltzeko ezin hobeak dira;** batez ere, ur eta gatz askoko tokietan, non gainerako traspaleta elektronikoek oso iraupen txikia eta mantentze kostu handia izaten duten.

Alabaina, ULMA Inoxtruckek fabrikatutako ekipamendu horien tamaina dela tarteko, ezin ziren erabili maniobra espazio txiki-txikia duten aplikazioetan. Ekipamenduen tamaina txikitzeke zegoen premia eta batera txikiagoak txertatzeko aukera aztertuta -bateria ‘garbiagoak’ eta iraupen handiagokoak, Lithium-Ion (Li-Io) teknologia berria dutelako-, ULMA Inoxtruckek berrikuntza proiektu bat bultzatu du, traspaleta elektroniko TRINKOEN sorta berria merkaturatzeko, Litio loizko bateriadunak, Arabako

AMOPACK enpresaren eskutik eta Eusko Jaurlaritzako HAZITEK Programaren eta Europako FEDER funtsen babesarekin.

### ERABATEKO ARRAKASTA IFFA AZOKAN

Eta zein testuinguru izango da IFFA 2019 azoka baino hobe -haragiaren sektorean munduko lehiaketarik garrantzitsuenak baita- 2020tik aurrera merkaturatutako egongo den eredu berri hau ez ezik, nekazaritzako elikagaien sektoreko ingurune erasokorretan kargak manipulatzeke Inoxtruckek garatu dituen soluzio berritzaile guztiak ere aurkezteko?

*“Soluzio berritzaileak, parte hartzaileen artean interes berezia piztu dutenak, igurikapen guztiak nabarmen gainditzeraino”,* Fernando Odriozola negoziu unitateko zuzendari-gerentearen arabera.



### ULMA CONSTRUCTION

## Geometria bakarreko eraikina, Hudson ibaira begira

40 Tenth Avenue 10 solairuko bulego eraikin bat da, eta High Linen ondoan dago, Hudson ibaira begira, Manhattanen. Proiektu hau Meatpacking distrituan kokatuta dago, eta 13.000 m<sup>2</sup> ditu, horietatik 2.000 m<sup>2</sup> aire zabalean eta 3.800 m<sup>2</sup> merkataritza gune bat osatuz, 10th Avenue-ren parean erakusleho handi batekin.

Eraikina ingurunean erabat integratuta egoteko diseinatu da, eta ingurumenean eragin positiboa edukitzeko. Fatxada beiraz estalita dago, eta eredu geometriko trunkatu baten itxura duten izkinak ditu. Bere diseinuan oso kontuan hartu da eguzkiarekiko edukiko duen posizioa, itzalak ahalik eta gutxien izateko.

Forjatuen 1.300 m<sup>2</sup> egiteko, **CC4 Aluminiozko lauzako enkofratu modularra eta ENKOFLEX egurrezko habeen enkofratua konbinatu dira.** Lauzen sistema biak bateragarriak dira eta konbinatu egin dira lan eritmoari eta ezarritako lan egutegiari eusteko. Bost metro baino gehiagoko altuerako lauzak zurkaizteko, **ALUPROP aluminiozko puntala** izan da sistema ideala.



### ULMA HANDLING SYSTEMS

## ULMA Handling Systemsek AENAKo hainbat aireportu egokituko ditu 58 milio euro baino gehiagoko balioarekin

EGOKITZAPEN HORIEK GUZTIAK EGITEKO 2.500 EKIPO BAINO GEHIAGO EGIN BEHARKO DITU ULMAK, 2020 ETA 2022 URTEEN ARTEAN FASEKA INSTALATUKO DIRENAK.

ULMA Handlig Systemsek **AENA sareko aireportuetan egin beharreko egokitzapenak egingo ditu segurtasun estandarreko europako araudi berriaren arabera.** Egokitzapenak aireportu hauetan egingo dira: **Kanaria Handia, Malaga, Menorca, Fuerteventura, Zaragoza eta A Coruña;** eta 58 milioi euroko balioa gaituko dute.

Malagako aireportuan, 2018an 19 milioi bisitari baino gehiago izan zituen aireportua, ekipajeen sistemako 3 terminalak berrituko ditu ULMAK. Zehazki, 3. Terminalean dauden 14 ikuskatze zirkuituak aldatuko dira, araudi berriaren eskatzen den erabaki denbora handitzeko helburuarekin eta estandar 3 izeneko makina berriak sartuta. Horrez gain, 3. segurtasun mailarako zirkuituak aldatuko dira dual wiew makina berriak sartzeko eta iragate linea berria gehituko da.

2. Termilanean, berriz, bederatzi makina berri sartzeko lehendik dauden bederatzi ikuskatze zirkuituak eguneratuko dira eta fakturazio gune

guztia aldatuko da: hirurogeita bost fakturazio mahai eta sei eratze karrusel izango ditu.

1 Terminalean zirkuitu guztia ere aldatuko da, N1-N2 motako bi ikuskatze zirkuitu berri gehituko dira, 3. segurtasun mailarako zirkuitu bat eta eratzeke bi hipodromo inklinatu.

Kanaria Handiko aireportuan, urtean 13 milioi bisitari dituen, 3 terminalerako ekipaje sistema berrituko du ULMAK;

estandar 3 motako 24 ikuskatze makina eta 3. segurtasun mailarako bost dual view makina sartuko dira.

Menorkako aireportuan terminala handituko da 900m<sup>2</sup> gutxi gorabehera. Ekipaje sistema osoa edukiko du: 6.000 ekipaje orduko gaitasunarekin, sei N1-N2 ikuskatze zirkuiturekin, 3. segurtasun mailarako zirkuituarekin eta eratzeke lau hipodromorekin.



### ULMA PACKAGING

## ULMA Packagingek talde osoari aurkeztu dio enpresa identifikatzen duten balioei buruzko bideoa



Maiatzaren 24an Oñatiko Zubikoa kiroldegiko pilotalekuan egindako Batzar Nagusian, guretzat adierazgarrienak diren eta geure burua ezagutarazteko erabili nahi ditugun sei balio identifikagarriak jasotzen dituen istorio samur bati buruzko bideoa aurkeztu dugu.

Motion Graphics teknikaren bitartez, ULMA Packagingeko lan une batzuk bildu, eta hor identifikatu dira balio guztiak: **hobetzeko eta berritzeko pasioa, osotasuna, globaltasuna, taldeko lana, legatuarekiko erantzukizuna eta bezeroarekiko konpromisoa.** ULMA Packagingeko lehendakariak, Lander Diaz de Gereñuk, aurkeztu zuen bideoa, eta bertaratuek txaloz erantzun zioten, hunkituta.

Bideoaren osagarri, liburu txiki bat argitaratu da, eta aurki banatuko da. **“ULMA Packagingen balioen garapena”** du izenburua, eta zehatz-mehatz azaltzen dira balio guztiak, portaera egokien eta desegokien gida batekin.

## ULMA PIPING

### ULMA Pipingek bere homologazioen sarea handitu du Kinder Morgan midstreameko parter garrantzitsuarekin

Estatu Batuetan midstream homologazioak lortzeko urteetan lanean ibili ostean, Kinder Morgan homologazioa lortzea gertaera oso garrantzitsua izan da ULMA Pipingentzat.

Momentu honetan, **Enterprise eta Kinder Morgan homologazioekin ULMA Piping egoera onean dago Estatu Batuetan midstreameko homologazioei dagokionez.**

Kinder Morgan energia azpiegituren konpainia garrantzitsuenetariko bat da Ipar Amerikan. Gutxi gorabehera 84,000 milia hodi ditu eta 152 terminal. Bere hodiekin gas naturala, gasolina, petrolio gordina, karbono dioxidoa (CO2) eta beste substantzia batzuk garraiatzen dituzte. Gainera, produktu eta material ugari

biltegitratzen eta manipulatu dituzten beraien terminaletan, hala nola, gasolina, hegazkinetarako erregaia, etanola, ikatza, koke-petrolio eta altzairua. Konpainiak gas naturalaren 72,000 milia hodi (115 900 km) ditu gutxi gorabehera, eta Estatu Batuetan kontsumitutako gas naturalaren %38 inguru mugitzen du.

Urtero mila milioi dolar inbertitzen dituzte konpainia handitzeko, hodian linea berriak sortuz eta dagoeneko daudenak zabalduz,

produktu energetiko mota batzuk merkatuan entregatzea bermatzen laguntzeko.



## ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

### Hormigoi polimerozko terraza aurrealdeak, pertsonalizatuak eta sormenezkoak Moralejan (Madril)

Moraleja auzoko (Madril) bizileku bat, 50 urte baino gehiago dituen; urteen eta eguraldiaren eraginez, terrazetako piezak zahartuta zeuden eta erortzeko arriskua zegoen.

#### ARAZOA

Aurrealdean pitzatutako panelak zeuden. Gainera, jardineretako ur iragazketek eragina zuten aurrefabrikatutako paneletan, armadurak eta horiek oinarritzen diren egitura laguntzailea herdoilduz. Jabeek **hondatutako pieza originalak aldatzea** erabaki zuten, sormen handiko formak dituztenak eta eraikinari pertsonalitate handia ematen diotenak.



#### SOLUZIO PERTSONALIZATUA

Soluzio pertsonalizatua izan denez, antzeko piezak lortu ahal izateko, baina iraunkorragoak, **ULMAk eraikineko fatxadaren zati handi bat eskaneatu behar izan zuen lehen zegoen modeloaren pieza lortu ahal izateko 3D inpresioan. Lehenengo pieza horretatik abiatuta, moldeak egin ziren eta lehen prototipoak lortu ziren.** Horiek obrara bidali ziren eta bezeroaren behin betiko oniritzia jasotakoan **azpiegitura espezifiko diseinatu, definitu eta garatu zen piezak fatxadan jartzeko.**

#### ULMA SISTEMA INTEGRALA

ULMAk sistema integrala eskaintzen die bezeroei eta hasieratik amaierara laguntzen die: **proiektuaren behar zehatzak aztertzeik obra amaierara arte, prozesu guztian, instalazioa barne, aholkularitza eskainita.**

## ULMA MEDICAL IMAGING

### ULMA Medical Imagingen lehenengo gailuak

ULMA Medical Imaging jarduerak buru-belarri dihardu osasunaren sektorean enpresa ekimen berriak merkaturatzeko, bereziki irudi mediko ez-erasokorrean, eta irudi medikoa atzitzeko gailu bat garatzen ari da, lehendik garatzen ari zen softwarearen soluzioen osagarri. Horrenbestez, soluzio global bat eskaini nahi dio merkatuari. U-RETINAL F da gailuaren izena.

**U-RETINAL FC erretinografo digital bat da, ez midriatikoa, bereizmen handiko 2D formatuan erretinaren irudiak hartzen dituena.** Gailu eramangarri bat da, erabilera errazekoa. Kalitate kontrolerako software bat darama, eta horixe da daukan ezaugarri berriena. Horri esker, adimena ematen dio gailuari, eta adierazten du ea irudia baliagarria den espezialistak

zein U-RETINAL DR softwareak aztertu ahal izateko. U-RETINAL FCren beste ezaugarri bat Wi-Fi konektibitatea da. Horri esker, hartutako irudia zeinahi gailutara bidal daiteke berehala.

Ezaugarri berezi horiek eta benetan lehiakorra den prezioa direla tarteko, teknologia horren erabilera orokorra egin liteke, eta horrek eragin positiboa dauka gaixoen zein gizartearen tratamenduan.

Irailean, "CE marka" lortzea dauka aurreikusita ULMAk; alegia, gailu hori banatzeko eta merkaturatzeko beharrezkoa den ziurtagiria.



## ULMA CONSTRUCTION

### Manu Colino Vegak, ULMA Constructioneko langileak, urteko asmatzaileari GALBAHE saria eskuratu du

Jabego Industrialaren eta Intelektualaren Munduko Egunari lotuta egin diren ospakizunen barruan, GALBAIAN enpresak, zeina sektore horretan espezializatuta baitago, **ULMA Constructioneko I+Gko ingeniari tekniko Manu Colino Vegari eman zion GALBAHE 2019 SARIA.**

Pasa den maiatzaren 22an, GALBAIANeko zuzendari Ismael Igartuak urteko asmatzaileari GALBAHE 2019 saria entregatu zion Manu Colinori, Arrasateko Garaia Parke Tenologikoan egin zen ekitaldian. Saria entregatzearekin batera, Manu Colinok aurrean agertzen zaizkion **erronka teknologikoei arrakastaz aurre egiteko duen gaitasuna nabarmendu zuen,** eta azpimarratu zuen, halaber, hirugarrenen patenteak urratzen ez dituzten soluzio alternatibo hobetuak sortzen eman duen laguntza eta asmakuntzak egoki babesteko egin duen lana.

**ULMAko talde teknikoak eta ingeniari teknikoak egindako berrikuntza eta garapen lanaren aitortza publiko honek**



**laguntzen du** ULMAk berrikuntzaren, sormenaren eta diseinuaren kalitatearen alde hartutako konpromisoa eta egindako apustua balioesten, bai eta enkofratu eta aldamio soluzio integral bat eskaintzaren

alde egindakoa ere, zeinarekin bezeroei errentagarritasun eta segurtasun handiagoa eskaintzen baitie maila internazionalen heldutako eraikuntza proiektuak gauzatzen.





## Estereotipoak apurtuz, STEAM ikasketak emakumeen kolektiboari ikusaraziz.

Ezoz Sobak, ULMA Handling Systems



### ULMA TALDEKO BESTE TALENTUAK

Taldeko langile eta bazkideek bateratu egiten dituzte beren ibilbide profesionala eta zaletasun zorrotzak, talentuarekin eta ahaleginarekin horma guztiak botatzen direla erakutsiz.

**Ezoz Sobak 28 urte dauzka, eta oñatiarra da. ULMA Handling Systemseko Marketin eta Komunikazio departamentuan lan egiten du duela 4 urte pasatxotik hona, eta modu aktiboan kolaboratzen du, mentore gisa, INSPIRA STEAM proiektuan.**

Industria Antolaketan graduatua eta Marketin eta Komunikazioan graduondokoa egina, proiektu honek eskatzen zuen STEAM emakumearen prototipo perfektua da Ezoz.

INSPIRA STEAMen helburua da zientzia, berrikuntza eta teknologiarekin lotutako ikasketak emakumei ikusaraztea; hain zuzen ere, hortik dator STEAM izena: Science, Technology, Engineering, Arts, Maths. Proiektuaren xedea ez da, ordea, emakumeen kolektibo osoa halako ikasketetara bideratzea. Helburua zera da: aukeratzeko ordua iristerakoan behintzat, neska gazteek beren aukeren artean sartzea halako ikasketak egitea, eta ez automatikoki baztertzea, estereotipoekin loturiko arrazoiak direla eta.

Gaur egun bistakoa da emakumeen kolektiboak portzentaje txikia ordezkatzen duela elektrizitate, mekanizazio, ingeniartzatza eta halako adarretako unibertsitate eta lanbide heziketako ikasketetan, besteak beste, estereotipoen eraginez maskulinizatu egin direlako ikasketak horiek.

Ezozik mentore gisa betetzen duen rola, izatez, bere esperientzia akademikoa eta lan esperientzia partekatzea da, Oñatin ikasketak aukeratzeko ordua iritsi zaien neska ikasleekin partekatu ere. "Taldek mentoring" izeneko lan tekniken bitartez, Ezoz eta beste bi lankide –bata telekomunikazioetako ingeniaria eta biologiako doktorea bestea– ikasleak gidatzen ibili dira, ezarritako estereotipoak apurtzen ahalegindu dira eta berdintasunari buruz mintzatu dira, STEAM ikasketak gazteenengana hurbiltzeaz gain.

*"Nire lagunei proiektua zer den azaltzen dieran, beti jartzen diet adibide bera: badira 100 ikasketa desberdin, eta neskok, 100 horien artean barik, 50en artean aukeratzeko hasten gara maiz. Eta kontua ez da gainerako 50ak alde batera uzten ditugula, baizik eta zuzenean guretzat ikasketak horiek "ez direla existitzen"; horien artean: ingeniartzak, elektrizitateko Lanbide Heziketa, mekanizazioa, matematikak, etab. Proiektu honen funtsa da neskek 100 aukera izatea mahai gainean, eta gure gustuaren eta interesaren arabera aukeratzeko",* esan digu.

Ezozik aitortu digunez, proiektuan parte hartzeko gonbidapena jaso zuenean ikaratu egin zen, ez zuen kontua oso argi ikusi. Lanerako hartutako neska profila 13-14 urtekoa zen, eta konplikatu zen, zaila iruditu zitzaion haien erreakzioak,

sentimenduak, adierazpenak etab. kudeatu ahal izatea. Baina, aldi berean, erronka pertsonaltzat hartu zuen. *"Beti da ona gure aletxoak jartzea. Gure esku hartzea arrakastatsuztat joko dut baldin eta gurekin egon diren neskek, ikasketak aukeratzeko orduan, 100 aukerak izaten badituzte kontuan. Eta 50 aukera baino ez badituzte kontuan hartzen, interes faltagatik izan dadila, eta ez beste ezerengatik",* azaldu digu.

Proiektua hasi aurretik, mentore guztiek jaso dute prestakuntza, berdintasunaren gaiari buruz, estereotipo kulturei buruz eta abarri buruz. Gainera, coach espezializatu batek zenbait gako eman dizkie, halako adin konplikatuaren egonik ziurgabetasunak horren agerikoak dituzten gazteekin saioak nola landu jakiteko. *"Ez da samurra, dedikazioa eta ahalegina eskatzen ditu. Baina ULMA Handling Systemsen daukagun malgutasunari esker, arazo barik uztartu ditzaket proiektua eta nire lana",* adierazi digu. *"Gainera, beti ikasten da zerbait; bazenekiten emakume batek asmatu zituela haizetakoak? Mary Andersonek asmatu zituen, eta oso bitxia da haren istorioa. Eta tipexa? Tipexa ere emakume batek asmatu zuen, Bette Nesmith Graham-ek, zehazki. Premiak ekarri zuen asmakaria. Nire ekarpena egiteko asmoz sartu nintzen proiektu honetan, baina gauza asko eta asko ikasketako aukera izan dut".*

*"Nire ekarpena egiteko asmoz sartu nintzen proiektu honetan, baina gauza asko eta asko ikasketako aukera izan dut".*

# Talentuaren kudeaketa, erronka berri bat ULMArentzat

Gaur egun, giza baliabideetako gure departamentu asko erabat murgilduta daude denok kezkatzen eta arduratzen gaituen zeregin batean, hau da: talentua erakarri eta atxikitzea. Hori dela eta, gure negozioetako giza baliabideetako arduradunak elkarriketatzeari ekin diogu, beren iritzia azaldu, eta konta diezaguten nola ari diren bizitzen, gure Taldean oro har, eta beren Negozioan bereziki, alde batetik, talentua erakarri eta gurera atxiki beharra, eta, bestetik, gure pertsonen artean lehendik dagoen talentua garatu beharra.



**“Orain, talentua erakarri ahal izateko, eskaintza ekonomiko on batekin ez da nahikoa”**

NEREA BURGOA.  
ULMA Pipingeko Pertsonen Kudeaketa eta Komunikazio zuzendaria

« **Aztertzen gabiltzan gaiari dagokionez, une honetan zelakoa da ULMA Pipingek daukan premia? Gaur egun lehentasuna da Negozioarentzat?**

ULMA Pipingentzat, pertsonak kudeatzeko estrategia erronketan ardatzen da; hona hemen erronka horietako batzuk: talentuari atxikitzea eta talentua erakartzea; hobera egiteko elkarrizketak; marka enplegatzailea; lidergoak garatzeko programak lantzea eta Giza Baliabideak eta komunikazioa kudeatzeko sistema eta prozesu arin eta malguak ezartzea eta digitalizatzea, Negozioaren oraingo eta geroko erronken aurrean erantzuteko dugun gaitasuna eta abiadura hobetzea helburu.

« **Jarduera bat bikain ikasi edo lantzeko daukagun ahalmena eta tasuna: horixe da talentua; baina zure ustez, badakigu enpresako pertsona bakoitzaren tasunak identifikatzen eta indartzen? Nondik uste duzu abiatu behar duela identifikazio horrek, kooperatibatik edo gure ingurune akademikotik?**

Denok gara gure inguruko profesionalen tasunak identifikatzeko gai. Besterik da, ordea, tasun horiek izendatzeko orduan igarment handiagoa edo txikiagoa izatea. Gaur egungo enpresek daukagun erronka nagusia zera da: gure inguruan –hala gizarte arloan nola enpresa arloan– ikusten ari garen erronka inportanteen aurrean (4.0 industriaren erronkak, gizarte eta demografia aldaketak, ikasteko moduetan izaten ari diren aldaketak, besteak beste) gure profesionalak izan behar dituzten gaitasunak zein izan behar diren jakitea. Gaitasun berri horiek identifikatzen

asmatzen badugu (autoikaskuntza, ekintzailtza, lankidetzeta...), gure profesionalen kompetentzietan txertatzeak duen garrantziak ohartuko gara, eta horrela, gure enpresa izango da gaitasunok bultzatzen lehena.

« **Zein balorazio egiten duzu ULMA Taldeak arlo honetan egiten duen ekarpenaz?**

ULMA Taldea funtsezkoa da pertsonen arloa garatzeko: Negozio guztietara eraman daitezkeen gidalerroak zehazteko; lan batzorde eta taldeen bitartez baterako proiektuak lantzeko; praktika onak partekatzeak, eta Negozio batzuetan baliagarri izan den horretatik ikasi eta beste batzuetara eramateko, izan ere, funtsezkoa da Negozio bakoitza garatzeko.

« **Antzematen duzu sintoniarik gainerako negozioekin?**

Negoziook printzipio, balio eta lana ulertzeko modu antze-antzekoak ditugu. Hori dela eta, sintonia handia daukagu gure artean, eta Taldeko kide izatearen sentimendua ere nabarmentzekoa da.

« **Itxura denez, negozio estrategia on bat edukitzearekin ez dugu nahikoa; horrekin batera, marka enplegatzaile gisa definituko gaituen marketin eta komunikazio estrategia bat ere eduki beharra dago. ULMA Pipingean, zelan gurako zenukete zuen xede publikoak zuek ikustea arlo honetan?**

Orain, talentua erakartzeko, eskaintza ekonomiko on batekin ez da nahikoa; gaur egun proiektu erakargarri bat bilatzen da, erretiroa hartu arteko enpresa bat baino gehiago; bizitza

profesionalaren eta pertsonalaren arteko balantze osasungarria ematen duen eskaintza bat bilatzen da; feedbacka eta profesionalen garapena sustatuko dituen enpresa kultura bat, lan egitera joatea gustuko izango duzun leku bat. Horiek dira gure balizko hautagaiei bidali behar dizkiegun seinaleak, eta ULMA lan egiten dugun pertsonak indar horien jabe bagara, orduan efektu positiboa are handiagoa izango da.

« **Bukatzeko, zure ustez, gurean lehendik daukagun talentua sortu eta garatzearen alde egin beharko genuke, ala kanpoko talentua erakartzearen alde? Edo kontua oreka topatzea da?**

Gauregun erronkabidauzkagu: enpresan lehendik daukagun kompetentziak indartu eta osatuko dituen talentua erakartzeko gai izatea; baina batez ere, lehendik daukagun talentua erronka berrietara egokitzea, eta enplegarritasuna ziurtatzea. Halako batean, gure langile zerrendan 4 belaunaldi desberdin elkartu behar dira, eta erronka handia da hori. Pentsatzeko eta lan egiteko modu desberdinak izango dira, eta belaunaldi bakoitzak bere indarrak beste belaunaldiari helaraztea izan behar dugu xede. Horrela, gure enpresak balio erantsi handiagoa izango du.

# Omenaldi hunkigarria gure erretiratuei



Ekainaren 7an omenaldia egin zitzaien erretiroa hartu duten gure kideei.

Guztion arteko adiskidetasun giroa izan zen nagusi. Aspaldi ikusi gabeko kideak ikusteko aukera zela tarteko, une hunkigarri asko izan ziren.

Jarduera hasteko, ongietorria eta aurkezpena egin ziren Taldeko auditoriumean. Iñaki Gabilondo zuzendari nagusiak eta Raul Garcia lehendakariak ULMA Taldearen gaurko egoeraren berri eman zuten, gizarte eta enpresa arloari dagokienez. Bisitak egin zituzten Negozioetara, eta han, enpresaren bilakaera zein izan den ikusi ahal izan zuten. Halaber, oraindik lanean ari diren kideak agurtzeko aukera izan zuten.

Amaitzeko, bazkaria izan zen Oñatiko Zubikoa kiroldegian. Han, hainbat ekintza egin ziren: ULMAko erretiratuen omenezko aureskua, Raul Garcia lehendakariaren hitzaldi laburra, horretarako argitaratutako bideoa, losu Igartuaren bertsoa (ULMA Construction), Aiko Taldearen emanaldia eta oroigarrien banaketa.

Azken batean, giro ederra izan zen eta egun bikaina erretiroa hartu duten gure kideentzat. Dagoeneko 2022ko ekainaren zain daude, beriz elkartzeko.

## Lekukotzak

### MANU GOROSPE - Erretiroduna



*“Egun zoragarria izan zen, ezin hobeto antolatutakoa. Gainera, benetan hunkigarria, adiskide zaharrek elkartzeko aukera izan genuelako, eta oroitzapen ahaztezinak gogorazi genituelako. ULMA Taldeak izandako bilakaeraren eta Negozioek oro har gaur egun duten egoera onaren berri jasotzea ere interesgarria izan zen. Mila esker guztioi jardunaldia antolatzeagatik! Ahaztezina izan zen, eta 3 urte barru errepikatzeko asmoz nago. Eskerrik asko”.*

### FIDEL AZPIROZ - Erretiroduna

*“Emozio bereziz betetakoa bihurtu zitzaidan ULMAko langile erretiratuen omenezko jardunaldia, lehenenik, Oñatiruntz abiatuta ibilbideko oroitzapenak burura, Oñatiko topaldian lankide ohiez inguratuta, aspaldiko lankide guztiei agurra luzatu nahian, motz gelditzen, ezin denekin egon, denbora nahikorik ez bakoitzarekiko jakinmina asebetetzeko, Aukezpenean ULMA Taldeko kooperatiben eguneroko jarduna eta proiektu berriak ezagutzean sorrarazten zidaten biziberritzeko ilusioa barneratu nahiak, beste garai batzuetan bizitako sentipen ugari sorrarazi zizkidan barne muinetan. Eskerrak, hamaiketakoak eta bazkariak, eman zigun tarterik, entzundakoak eta lantokian ikusitakoak sentiarazi zizkidaten guztia barneratzeko, giro aparteko lagunarteko solasaldi ezin hobearen erdi-erdian urte luzeetako nekeari errekonozimendu zintzoa eta lehiala bizi izan genuen eta elkarren arteko bizi pozak adierazteko, bertso eder eta mamitsuak kantatuz amaiera eman genion”.*

### JUANJO IZA - Erretiroduna



*“Egun zoragarria izan zen niretzat. 6 urtean ikusi gabeko lagunekin orduak eta orduak partekatu ahal izan nituen. Negozioarekin ere zur eta lur geratu nintzen, enpresa utzi dudanetik aurrerapauso handiak eman baititu, nola produktuari dagokionez, hala pertsona zein erakundeari dagokienez. Bazkariarena ere ideia bikaina izan zen, eta oso ondo egon zen, nahiz eta, beti bezala, taldeak osatuta zeuden. Zalantzarik gabe, horrelako beste ekimen bat antolatuko balitz, hantxe izango naiz”.*



## Euskara ikasi edota hobetzeko saioak ULMA Taldean

Urteak dira ULMA Taldeko negozioetan euskara ikasi edota hobetzeko ikastaroak antolatzen direla. 2018-2019. ikasturtean irakasle eta ikasle ibili diren hainbatek beren esperientzia kontatu digute.



Urritik aurrera talde berriak. Animatu!  
Informazio gehiago nahi baduzu, galdetu negozioko Pertsonen sailean.

### MARIJO ALTUBE.

Koma akademiako kidea, hamar urtetik gora dabil ULMA Taldean eskolak ematen

"Normalean, ULMA n eskaintzen ditudan eskolak taldekakoak dira, negozio ezberdinetako ikasleek osatuta. Talde batzuek, astean bi egunetan, ordu eta erdiko klaseak dituzte eta beste batzuek, berriz, astean behin, hiru orduz jarraian; azken modalitate honi "Bazkaltegia" deitzen diogu. Lehen zatian klasean egoten gara eta gainontzekoa bazkaltzera joateko aprobetxatzen dugu. Kurtso hasieran, helburuak eta metodologia ezartzen ditugu eta gero hori guztia aurrera eramaten saiatzen gara. Gure eskolak oso komunikatiboak dira, asko hitz egiten dugu; baina, teoriari eta ariketei ere tarte zabala eskaintzen diegu urritik ekainera arteko saioetan.



### LARRAITZ MADINABEITIA.

EMUN kooperatibako kidea, hainbat ikastaro labor ematen aritu da ULMA n

ULMA n euskararen erabilera areagotzea da helburua. Hori lortzeko, ezinbestekoa iruditzen zaigu ez dakienak euskara ikasteko urratsak egitea, eta euskaldunek komunikatzeko gaitasuna hobetzea. Helburu horrekin, honako ikastaroak eman ditugu. Alde batetik, euskara ikasteko ikastaroak: Hasiberrien modulua (A1), eta zerbait dakitenentzako modulua (A2); eta bestetik, trebakuntza-saioak: Idatzizkoaren hobekuntza, eta Jendaurrean eroso eta egoki komunikatzeko.

Hasiberriek euskararekin lehen harremana izan ohi dute lorpen nagusi eta euskara lantzen/ezagutzen jarraitzeko grina pizten saiatu gara. Trebakuntza-saioetako ikasleek, berriz, egokiago komunikatzeko hainbat baliabide ezagutu dituzte. Gure metodologiaren ardatzetako bat "erabiliz ikasi" da.



Zer iruditzen zaizu ULMA k euskara ikasteko aukera ematea? Zer azpimarratuko zenuke?



**EDU GONZALEZ**  
ULMA Piping

"Oso inizatiba ona iruditzen zait ULMA k euskara ikasteko aukera ematea. Kooperatibak euskararekin duen konpromisoa islatzen du. Ikasturte honetan "hobekuntza" saioetan (8h) parte hartu dut.

Gure egunerokoarekin erlazioatutako akatsak eta esaerak ezagutu eta horiek hobetzeko baliabideak erakutsi zizkigun irakasleak. Saioetan egindako ariketak oso egokiak ziren azaldutakoa barneratzeko. Horrela ikastaroek langileok dugun euskara maila hobetzeko aukera ematen dutela uste dut."



**MARIO PEREZ**  
ULMA Handling Systems

"Urtarriletik otsailera hasiera mailako (A2 maila) moduluan ibili nintzen. Laburra izan zen arren, balio izan zidan nekiena gogorarazteko: aditzak, gramatika..."

Eskolan euskara ikasi nuen, baina ondoren ez dut aukerarik izan erabiltzeko. Orain, berriz, lankideek euskara erabiltzeko ohitura dute, eta ikasteko beharra sumatzen dut. Oraindik ez naiz euskaraz egiteko gai sentitzen, baina gero eta gehiago ulertzen dut. Eskertzen da enpresan euskara ikasteko aukera izatea."



**MARIAN GOMEZ**  
ULMA Architectural Solutions

"ULMA Eraikuntzako erdi mailako taldean (B1 maila) nabil irailetik. Astean bi egunetan elkartzen gara 13:30etik 15:00etara, negozio desberdinetako 7 lagun. Talde polita daukagu, mailari dagokionez nahiko homogeneoa. Beste negozioetako jendea ezagutzeko aukera ere eman didate eskolek eta hori ere positiboa da. Klaseez gain, irteerak egiten ditugu eta irakasleak azterketetara aurkeztera animatzen gaitu. Horrela, etxean ere lan egitera bultzatzen zaitu eta eskoletako erritmoa areagotu dezakezu."



**ANA REMEDIOS**  
ULMA Packaging

"ULMA Packagingeko bazkaltegi formatuko hasierako mailako (A2 maila) taldean parte hartzen dut. Astean, egun bakarrean hiru orduko saioak ditugu: lehen erdian ariketak eta hizkuntzaren lanketa egiten dugu eta beste erdian, bazkaltzen dugun bitartean mintzapraktika.

ULMA k bete-betean asmatu du eskaintza honekin. Denok inplikatzeko bidea ematen du eta nik bezala euskara ama hizkuntza ez dugunoi, euskaraz komunikatzeko aukera eskaintzen digu. Oso esperientzia aberasgarria izaten dabil."



**IBAN LIZARRALDE**  
ULMA Construction

"Jendaurrean eroso eta egoki" ikastaroan hartu dut parte. Hizkuntzatik haratago doan ikastaroa da, aberasgarria eta interesgarria. Irakaslearen partetik, maila altuko ikastaroa iruditu zait. Ikasle taldea gogotsu aritu da lanean. 10 orduko ikastaroa zena luzatzeko eskatu genuen eta 6 ordu gehiago egin ditugu.

Teoria eta praktika landu ditugu ikastaro honetan, ahozko komunikazioa eraginkor bihurtuko duten hainbat teknika jorratuz. Horrelako ikastaroek ohikoagoak izan beharko lukete, lanerako eta norbere bizitzarako ere baliagarriak dira eta."

Atal honetan, zure Fundazioak –ULMA osatzen dugun pertsonekin batera– egiten duen jardueraren berri emango dizugu; izan ere, horixe da gizartea eredu humanizatuago eta jasangarriago batera eramateko hartua dugun konpromisoa bideratzeko daukagun modua.



## Famili kontziliazioa: Haurrentzako tailerrak ekainean

Ekaineko lehenengo hiru asteetan, eskolak goizez baino ez daudenez, **gurasoei euren familia eta lan bizitza bateragarri egiten laguntzen ahalegindu gara.** Horretarako, haurrentzako tailerren laugarren edizioa antolatu dugu ULMAN. 4 urtetik gorako haurrei zuzendutako tailerrak izan dira, 14:00etatik 18:00etara bitarte. Hartara, gurasoak lasai joan daitezke lanera, txikiak gozatzen eta arretapean egongo direla jakinda.

7 begirale eta ULMAko pertsonen senitartekoak arduratu dira tailerrak dinamizatzeko. Hamaika jarduera, esperimendu, eskulan, musika eta jolas

egin dituzte, eta ezin hobeto pasa dute.

Aurten, Oñatiko Larraña harrera etxean bizi diren afrikar errefuxiatuak izan ditugu gonbidatu bereziak. Ostegunetan joan dira, 8 urtetik gorako haurrei koloretako harien eskumuturrekoak egiten irakastera.

**Azken egunean, parte hartzaile eta senide guztiak gonbidatu genituen 2019ko tailerren amaiera ekitaldira.** Haurrek antzerkia egin zuten, eta ondoren, 80 orduko tailerren laburpen bideo bat ikusi genuen. Amaitzeko, aurtengo oroigarri, errefuxiatu gonbidatuek eurek eskuz egindako oparitxo bat ekarri zuten, haur guztien artean banatzeko: harizko



4.  
urtea

115  
hur



7  
begirale

azken egunean ataratako argazkia >>

eskumuturreko bat. Tailerretan erakutsitako modeloa baino askoz ere konplexuagoa, baina.

## Betaurrekoen bilketa solidarioa, Senegalerako

Uztailaren 15era bitarte, betaurrekoak bilduko ditugu, gero Senegalera eramateko: betaurreko graduatuak eta eguzkitako betaurrekoak. Bilketa honen bidez, Bergarako Ndank Ndank elkarteari lagundu nahi diogu, izan ere, ULMAN lan egiten duten hainbat pertsona dira elkarte horretako kideak.

Ndank Ndank irabazi-asmorik gabeko elkarte da, kulturartekotasuna eta Senegalgo garapena bultzatzeko programak gauzatzen dituena. Elkarte horretako boluntario batzuk Senegalera joango dira abuztuaren 4tik 18ra, bildutako betaurreko guztiak pertsonalki eramateko. Gainera, Elgoibarko Uzuri optikak dohaintzan emandako ikusmena graduatzeko makina bat ere eramango dute.



zure kooperatibaren harreran utzi ditzakezu

Emateko moduko betaurrekoak badituzu, beste pertsona batzuei hobeto ikusten lagunduko diezu.

#keinujasangarria

## Mugikortasun elektrikoa ULMAN



Eusko Jaurlaritzaren Energiaren Euskal Erakundearen laguntzari esker, mugikortasun elektrikoari buruzko hitzaldi teoriko bat entzuteko eta, ondoren, Hyundai Kona elektrikoa probatzeko aukera izango dugu. Irailaren 26an, 11:00etatik 13:00etara ULMA Taldeak Oñatin dituen instalaziotan.

**Hitzaldira doazen pertsonek bi egunetan autoa erabiltzeko aukera izango dute, etxetik lanerako joan-etorrietarako.**

Interesgarria iruditzen zaizu? Jarri gurekin harremanetan: [ulmafundazioa@ulma.com](mailto:ulmafundazioa@ulma.com).

\*Beharrezkoa izanez gero, pertsona bakoitzak kudeatuko du parte hartzeko baimena, bere kooperatiban.

## 26 bizikleta elektrikoak

Dagoeneko amaitu da lanera joateko helburuarekin Orbea bizikleta elektrikoa erosteko laguntzen kanpaina. Guztira, 26 pertsonak eman dute izena programan, eta eskura dute bizikleta elektriko berria. Mila esker, lanerako joan-etorrietan jasangarriagoak izateagatik.



## Iraganari keinuka



### 60ko hamarkada

Otaduiko instalazioetako tailerraren irudia, 60ko hamarkadakoa. ULMAren lehenengo ontziratze makinak ikus ditzakegu.

ANTZEKO IRUDIREN BAT BALDIN BADAUKAZU EDOTA MUGARRI HISTORIKOREN BAT GOGOAN BADAUKAZU, GUREKIN HARREMANETAN JAR ZAITEZKE, ULMAREN HISTORIA AZTERTZEN DUGUN ATAL HONETAN ARGITARATZEKO.

ALDEZ AURRETIK, ESKERRAK EMATEN DIZKIZUEGU ZUEN LANKIDETZAGATIK.



## ERRETIROAK: 2019ko apirilaren 1etik abuztuaren 31ra arte

Fernando Zabala



Jesús M. Goitia



Iñaki Olalde



Bernabe Diaz



Jose Luis Barrena



Manuel Regueiro



Luis Felipe López



Eskerrik asko denoi eta ondo pasatu! **Zorionak**